

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KANPEZUKO UDALA

#### Hasierako onespena ematea hainbat ordenantza aldatzeari

Udalbatzak, 2020ko urriaren 27ko ohiko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion ondoko ordenantzen aldaketari:

- Hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Udalaren lokalen eta materialen erabilera lagatzeko prezio publikoa arautzen duen ordenantza.
- Autokarabanak eta etxebizitza ibilgailuak aparkatu eta gaua emateari buruzko udal ordenantza.
- Zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza.

Udalbatzak, 2020ko urriaren 27ko osoko bilkuran, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1985 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, erabaki zuen espedientea hogeita hamar egunez jartzea jendaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Epe horretan, interesa duen edozeinek aukera izango du espedientea udal bulegoetan aztertzeko eta egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezteko. Era berean, udal ordenantza horien aldaketen testuak interesdunen eskura egongo dira Kanpezuko Udalaren web atarian: [www.campezo.eus](http://www.campezo.eus).

Epe horretan ez bada aurkezten erreklamaziorik, behin betiko onetsitza joko da ordenantza horien aldaketa erabakia.

Santikurutze Kanpezu, 2020ko urriaren 28a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*